# BESTELAKO XEDAPENAK

## HEZKUNTZA SAILA

## 2432

*AGINDUA, 2017ko maiatzaren 2koa, Hezkuntzako sailburuarena, honako agindu hau aldatzen duena: «Agindua, 2017ko apirilaren 10ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baita Irale programaren 2017ko udako eta 2017-2018 ikasturteko ikastaroak eskaintzea eta, ikastaroak egiteko plazak esleitzeko prozedura ezartzea».*

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.c) artikuluan xedatzen denez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak maila bereko xedapen baten bitartez zuzenduko dira, baldin eta nabarmenak ez badira, eta horiek zuzentzearen ondorioz, dokumentuaren edukia edo esanahia benetan edo itxuraz aldatzen bada.

Era horretako hutsak aurkitu dira Hezkuntzako sailburuaren 2017ko apirilaren 10eko Aginduaren I. eranskinean, zeinaren bidez iragartzen baita Irale programaren 2017ko udako eta 2017-2018 ikasturteko ikastaroak eskaintzea eta ikastaroak egiteko plazak esleitzeko prozedura ezartzea (2017ko apirilaren 24ko EHAA, 77. zenbakia). Hori dela eta, dagokion zuzenketa egiten da hemen:

2017/2051 (18/12) orrialdean,

honela dio:

| Norentzat | Irakastorduz kanpoko ikastaroak | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | A | E | F | H | I | Q |
| (…) | | | | | | |
| Haurreskola Patzuergoko irakasleak eta hezitzaile finkoak | X | X | | X | | |

baina honela esan behar du:

| Norentzat | Irakastorduz kanpoko ikastaroak | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | A | E | F | H | I | Q |
| (…) | | | | | | |
| Haurreskola Patzuergoko irakasle eta hezitzaile finkoak eta ez finkoak | X | X | | X | | |

Vitoria-Gasteiz, 2017ko maiatzaren 2a.

Hezkuntzako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO